

2011ko EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA: FE FAMILIAKO MEDIKUA LMT

2011ko uztailaren 27ko EHAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituena.

2011ko irailaren 15eko EHAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren uztailaren 29ko 1468/2011 Ebazpena argitaratu zen, FE Familia-Medikua LMT kategoriari dagozkion deialdiak eta oinarri espezifikoak onartzen dituena.

2011ko EPE webean, 2012ko ekainaren 6an, Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendariaren maiatzaren 8ko 412/2012 Ebazpena argitaratu da, FE Familia-Medikua LMT kategoriako oposaketa-fasea gainditu dutenen zerrenda onartzen duena.

Azken ebazpen honetan azaltzen diren **gainditutakoek** 10 egun balioduneko epea izango dute, hau da, **2012ko ekainaren 7etik ekainaren 18ra**, dagozkien **betekizun eta merituak alegatzeko**, gaindituen zerrenda onartzen duen ebazpenean eta oinarri orokorretako 12.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Era berean, **hauta-proben emaitzei buruzko informazio eguneratua** argitaratu da, kalifikazio-epaimahaiak interesatuek aurkeztutako erreklamazioak errebisatu ondoren: erantzun-txantilo eguneratua eta emaitza eguneratuak.

2011ko EPEko kontsulta pertsonalizatuen bidez, gainditutakoek **Osakidetzak dituen datuak** ikusi ahal izango dituzte, ondokoei dagokienez: izan beharreko titulazioa, egindako zerbitzuak, prestakuntza, euskerako hizkuntza eskakizunak,...

Betekizunak eta merituak alegatzeko prozesua errazteko, hurrengo **informazio eta dokumentazioa** argitaratu da 2011ko EPEko oharren atalean:

- **Prozeduraren laburpen-koadroa**, betekizun eta meritu ezberdinak egiaztatzeke modua adierazten duena.
- Betekizunak eta merituak alegatu eta mekanizatzeko **jarraibideak**. Arreta berezia jarri behar zaio izan beharreko titulazio akademikoaren atala betetzeari.
- **Betekizunak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentua**, gainditutako izangai guztiek bete, erregistratu eta epearen barruan entregatu beharko dutena.

Erreklamazio-eredua, interesatuek Osakidetzak eskainitako datuen aldaketa eskatzeko, beraiekin ados ez egoteagatik. Beste Administrazio Publikoetako esperientziari dagokionez, egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria entregatu beharko da, edo notarioak egindako kopia kautoa.

Osakidetzan egindako zerbitzuak beste kategoria/lanpostu funtzional batera lotzeko dokumentua, oinarri orokorretako 13.1.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan.

Egindako zerbitzuak egiaztatzeke eredua, beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak alegatzen diren kasuetan.